



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko azaroaren 8ko bilkura

Bi mila eta hogeita bigarren urtean, azaroaren zortzian, zazpitan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : HEGUY Antton

Bilkurako idazkari izendatua izan da : FALXA Odile

Deialdiaren eguna : 2022ko azaroaren 3a

Afitzatze eguna : 2022ko azaroaren 3a

3. ERABAKIA: M57 KONTULARITZA NOMENKLATURAREN EZARTZEA **2023ko URTARRILAREN 1etik GOITI**

(7.1 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari oroitarazi dio M57 aurrekontu eta kontularitza erreferentzial berria frantses estatuaren menpeko tokiko erakunde guztietan indarrean izan behar dela 2024ko urtarrilaren 1ean, lehengo M14 erreferentziala ordeztzeko.

Zehaztu du 2015eko abenduaren 30eko 2015-1899 frantses dekretuak aukera ematen ziela tokiko erakundeei kontularitza esparru berrira aldatzeko epe muga horren beha egon gabe. Hori dela-eta, Herriko finantza kudeaketa optimizatzeko xedearekin, biltzarkideei proposatu die arau berriak 2023ko urtarrilaren 1etik goiti aplikatzea.

Zehaztu du M57 instrukzioak malgutasun handiagoa eskaintzen duela, ezen Herri Biltzarrak Auzapezari baimena eman baitiezaioke atal bateko kredituak beste batera pasatzeko, langile kredituak izan ezik, betiere atal bakoitzeko gastu errealean %7,5eko muga batean (Frantziako LKKOko L.5217-10-6 artikulua). Hala gertatzen bada, Auzapezak Herri Biltzarrari jakinaraziko dio erabakiaren ondorengo biltzar saioan.

Zehaztu du ere, kontulari publikoak aldaketaren aldeko aurretiko iritzia eman duela. Kontularitza araudi berria aurrekontu nagusiari, aurrekontu erantsi eta juntatuei aplikatuko zaie.

Herri Biltzarrari proposatu dio gai horri buruzko erabakia hartzea.

Auzapezaren azalpenak entzunik eta luzaz eztabaidaturik, Herri Biltzarrak,

ERABAKI DU, M57 aurrekontu eta kontularitza esparrua herriko aurrekontu nagusi, aurrekontu erantsi eta aurrekontu juntatuentzat erabiltzea, hemen azaldua denaren arabera, 2023ko urtarrilaren 1etik goiti, eta kontularitza plan laburtua aplikatzea.

AGINDU DIO, Auzapezari ekintza horren burutzeko behar diren izapide guzaien egiteko.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balitzko boz kopurua : 14

ALDE : 14

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gainera egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko azaroaren 8an

Auzapeza,

Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,

2022/12/05ean publikatu edo notifikatu ondoan,

Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/12/05ean.